

Zestoako loroa

Iñaki Zubeldia



ZESTOAKO LOROA
LORO BIHURRI BAT TREN GELTOKIAN

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2016ko azaroan

Maketazioa:

Erein

Azala eta barruko irudiak:

Estibalitz Jalón

© Iñaki Zubeldia

© EREIN. Donostia 2016

ISBN: 978-84-9109-148-6

L. G.: SS-2121/2016

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

IÑAKI ZUBELDIA

ZESTOAKO LORO
LORO BIHURRI BAT TREN GELTOKIAN

Marrazkiak: Estibalitz Jalón

erein **AUSKA** 


idazlea iñakizubeldia



Iñaki Zubeldia (Ikaztegieta, 1945). Maisua eta Pedagogian Lizentziatua, testugintzan eta haur literaturan aditua da. Hamar bat urtez irakasle lanetan aritua da eta gero Hizkuntza arloko testuak prestatzen. Haur literatura ere landu du, umeentzat eta gazteentzat liburu mordoa idatziz. Horien artean: *Euskaldun bat Marten*, *Pako belea*, *Xirripin fantasmatoxa*, *Nire aita ezin izan nuen salbatu*, *Katalina kontalari*, *Leize-zuloko misterioa*, *Basoa sutan...* Irun Hiria Saria, JUUL eta beste hainbat sari irabazi ditu.

estibalitzjalón

marrazkilaria



Estibalitz Jalón (1984). 2007an argitaratu zuen lehen lana, eta geroztik, hogeitaka liburu ilustratu ditu. 2009an, haurrentzako albumik onenaren egitasmoa saritzen duen Etxepare saria irabazi zuen, eta, 2010ean, *100 de hoy: Espainiar Estatuko Haur eta Gazte literaturako ilustratzaile eta idazleak* izeneko erakusketan parte hartzeko aukeratu izan zen, IBBY-ren 32. Nazioarteko Kongresuan. Horrez gainera, Euskal Herriko hurrek bi urtez segidan hautatu dute beren ilustratzaile kutunen artean JUUL saria emanda.

Loro berezi bat Zestoan

Bazen behin loro bat Zestoan, loroa ez zena yakoa baizik. Baina jendeak loroa deitzen zion eta ni ez naiz izango izendapen hori kenduko diona. Yako izeneko hegaztia loroen familiakoa da, baina Hego Ameriketan bizi ordez Afrika erdialdean bizi da. Kolore grisaxka du gorputz osoan, buztanean izan ezik, hau gorri-gorria baitu. Gainerakoan loroen itxura osoa du, moko kakoa, okerra goitik behera, buru biribila eta erpe sendoak. Eta loroek bezalaxe hitz egiten eta pertsonen hotsak eta txistuak imitatzen ditu.

Gineatik ekarri zuen Kornelio izeneko militar batek, gaztea zela. Zestoako Bainu Etxean sendatzeraz etorri zen gizon biboteduna, loro eta guzti, eta Geltoki hotelean hartu zuen ostatu. Pepe edo Pepito

deitzen zioten, bietara. Peperi hainbeste gustatu zitzaion hoteleko eta ondoan zegoen tren geltokiko giroa, non ez baitzuen Madril aldera itzuli nahi izan bere jabearekin.

–Zu joan, nahi baduzu. Ni ez noa –errepikatzen zion loroak behin eta berriz militar tenteari. Esan beharrik ere ez dago norbaitek erakutsi ziola hori esaten begaztiari, beste hainbat gauza bezala.

Korneliok pazientziaz hartu zuen loroaren apeta, eta konturatu zenean loroak ez zuela Zestoatik mugitu nahi, amore eman zuen

–Ondo zaindu ezazue, hemendik ez du joan nahi eta –erregutu zien hoteleko arduradunei bibote beltz zorrotzeko gizonak—. Izan dadila zoriontsu behintzat.

Joanito tren geltokiburua ere hoteleko tabernan zegoen eta ziurtasun osoz erantzun zion:

–Hau bezalako tokirik ez du aurkituko zoriontsu izateko. Ez izan zalantzarik...

Militarra lasai geratu zen, ordurako konturatuta baitzegoen Joanito eta loroaren artean adiskidetasunaz haratago bazegoela konplizitate berezi bat ere.

Joanito Portu, Zestoako tren geltokiburua zen. Gizonari trenen ardura zuzen eramatea gustatzen

CESTONA VILLA



zitzaion eta jendearekin hitz egitea. Ia beti aldarte oneko egoten zen tren geltokira joan eta iluntzean erretiratzen zen arte. Gero lagunekin txikiteo pixka bat egiten zuen.

Zumaiatik Zumarragara zihoan karril estuko tranbia herriaren albotik pasa eta “Cestona Villa” jartzten zuen geltokian gelditzen zen. Bertan balneariora zetozen bezeroez gain herriko jendea eta inguruko herrietako baserritarrak ere joaten ziren Azpeitira edo Zumaiara beren barazkiak, oiloak, untxiak edota txerrikumeak saltzera. Batzuetan, feria usaina hartzen zuten treneko bagoi zaharkitu haiek.

Goizero, lora hoteletik tren geltokira jaisten zen Joanitoren gana, haren oso lagun egin baitzen. Joanitok gosaltzeko ogi puskak ematen zizkion ardotan bustita, eta hegaztiari izugarri gustatzen zitzaion gosari hura, hark tenplean jartzen baitzuen goiza alai-alai pasatzeko. Batzuetan gizonari burua joan egiten zitzaion geltokiko bere eginkizunetara eta lanean murgiltzen zen, loroaren gosariaz ahaztuta. Loroak pazientzia handiz itxaroten zuen janari bixigarri hura Joanitok noiz ekarriko, baina gizona ez zen gogoratu



ere egiten eta, orduan, Pepék gogorarazi egin behar izaten zion:

–Joanito, Joanito! Sopitas con vino, sopitas con vino...!

–Ez hago gustura eztarria freskatu gabe, e –xuxurlatzen zion geltokiburuak horrelakoetan.

Baina loroak bere erretolikarekin jarraitzen zuen gosaria lortu arte:

–Joanito, Joanito! Sopitas con vino, sopitas con vino...!

–Bai, bai, emango dizkiat ardo-zopak –esaten zion goxo-goxo gizonak eta platertxo batean jartzen zizkion ardotan bustitako ogi puskak.

Pepék instant batean irensten zituen zopa pizgarri haiek eta askotan zorabioak astintzen zuen haren burua:

–Ai, ama! Mareatzen ari naiz ala marea gora datorkit burura? –galdetzen zuen loroak ahots zorrotz harekin.

–Hi haiz loro zoroa! Isildu hadi behingoz! –erre gutzen zion Joanitok.

Baina loroak bere erretolikan jarraitzen zuen, jendearen gozamenerako.